

PAZIENTEAREN ESKUBIDEAK



Pazientearen eskubideak

Osakidetzako zerbitzuetako eta Osakidetzak hitzartutako zerbitzuetako paziente eta erabiltzaileak honako eskubide hauek ditu:

- 1.** Atentzioa, banan-banakoa eta bere neurrikoa, begirunerik handienaz, zuzentasunez eta ulerkortasunez jasotzekoa.
- 2.** Osakidetzak artatzen duen populazioaren behar sanitarioetara egokitutako zerbitzu-sarea edukitzeko eskubidea. Sare horrek baliabide sanitario eskuragarri eta eraginkorrek izango ditu, eta asistentziaren kalitatea ziurtatuko duten bide profesionalak erabiliko ditu.
- 3.** Bere osasun-egoerari buruz, eta egin diezaioketen edozein interbentziok edo tratamenduk egoera horretan izan dezakeen eraginari buruz, behar duen informazioa jasotzekoa. Berak nahi izanez gero, informazioa eman behar zaio edozein neurri diagnostiko edo terapeutiko hartzeko edo proba osagarriak eskatzeko egon diren arrazoiei buruz, eta, era berean, itxaronaldian gehiegizko atzerapenen bat izan bada, hori gertatzeko egon diren arrazoiei buruz.
- 4.** Sistema sanitarioak bere osasun-egoerari buruz sortzen duen informazioa bere historia klinikoan sartzeko eskubidea. Historia horretan biltzen dira denboran zehar pazientearen eta zentroaren arteko asistentziako harreman guztiak.
- 5.** Bere historia klinikoaren konfidentzialtasuna ziurta diezaioten, eta, berak baimena eman ezean, erabil ez dezaten, baldin ez bada ikerketa sanitario anonimoa egiteko eta zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko.
- 6.** Zalantzaren bat izanez gero, Osakidetzako beste mediku bati bigarren iritzi bat eskatzeko eskubidea, bere osasunari edo bizitzari arriskua ekar diezaiokkeen tratamendu, interbentzio kirurgiko edo prozedura mediko batean abiatu baino lehen.
- 7.** Ikerketa sanitarioen subjektu izateari eta edozein zainketa edo azterketari ezezkoa ematekoa, baldin eta helburu nagusia hezkuntza edo informazioa bada, eta ez, terapia edo diagnostikoa.
- 8.** Diagnostikoari, tratamenduari edo antzeko prozedurei ezetz esatekoa, baldin eta horrek osasun edo segurtasun publikoari eragiten ez badio.
- 9.** Eskubidea dauka eragingarritasuna frogatu gabe daukaten prozedura diagnostiko edo terapeutikoak ez onartzeko. Tratamendu hauen arrisku eta abantailen berri behar bezala eman diotenean bakarrik eman dezake pazienteak bere baimena. Baimen hori idatziz eman behar du, eta gero, atzera ere bota dezake.




10. Arazo mentalak dituen pazienteak eskubidea dauka banakako eskubideek eta giza eskubideek ematen dioten babesa jasotzeko agintari sanitarioengandik.
11. Itxaronzerrenda batean jarri behar badute, urgentzia medikoaren eta itxarondenboraren arabera lehentasunez eta irizpide zuzenez jarria izateko eskubidea, bai eta aldian-aldian egon daitezkeen atzerapenei eta arrazoiei buruzko informazioa jasotzeko ere.
12. Bere diagnostikoaren eta ospitaleko tratamenduaren ardura daukan medikua une oro zein den jakitekoa.
13. Arreta ematen dioten langile sanitarioen estatus profesionala, uniformeak edo beste ikur batzuk direla medio, erraz bereizi eta ezagutzeko modua izateko eskubidea.
14. Eskubidea dauka, medikuarekin ados jarrita, oheburuko medikua (mediku orokorra eta pediatra) hautatzeko.
15. Oheburuko medikuarekin ados jarrita, ospitalea eta zerbitzu espezializatua hautatzekoa.
16. Agindu dizkioten medikamentuen erabilpenari buruzko jarraibideak modu argian idatzita jasotzeko eskubidea.
17. Osasun Txartel Indibidualaren jabe izateko eskubidea. Dokumentu hori pertsonala eta besterenezina da, lurralde nazional osorako balio du eta asistentzia sanitarioa jasotzeko eskubidea ziurtatzen du.
18. Zerbitzu sanitarioen funtzionamenduari buruzko kexak, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko eskubidea dauka, eta, era berean, horiei buruzko erantzunak jasotzeko Administrazio Sanitarioaren aldetik.
19. Ospitaleko alta medikoaren txostena jasotzekoa.
20. Zentro sanitarioan erabilitako baliabide ospitalarioen kostua ezagutzeko eskubidea, zuzenean ordainduak izan badira, edo izan ez badira ere.
21. Agintari sanitarioekin ados jarrita, Osakidetxari laguntzen dioten jardueretan borondatez parte hartzekoa.



Emakumearen eskubideak

Emakumeak, Osakidetzako zerbitzuak edo Osakidetzak hitzartutakoak erabiltzen dituenean, eskubide orokor guztiez gain, ondokoak ere badauzka:

- 1.** Informazioa eta aholkularitza lortzeko eskubidea, metodo antikonzeptibo egokia aukeratzeko orduan.
- 2.** Haurdunaldia eten nahi izanez gero, informazioa eta aholkularitza lortzeko eskubidea dauka, betiere, legeak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak gordeta, eta prozesu osoan zehar azkartasun handiena eta isilpekotasuna bermatuta.
- 3.** Erditzean parte-hartze aktiboa izateko eskubidea dauka, protagonista bera izan dadin.
- 4.** Erditu baino lehen, erditzean eta ondoko aldian bere konfiantzazko pertsona batekin egotekoa.
- 5.** Erditu ondoren, ahalik azkarren eta ospitalean dagoen bitartean, haurra bere ondoan izatekoa.
- 6.** Eskubidea dauka informazioa jasotzeko bai eta erabakiak hartzeko ere, planteatzen diren interbentzioak ikuspegi klinikotik erabat beharrezkoak ez badira eta amaren edo haurraren kalterik gabe alde batera utzi badaitezke, esate baterako, erditzea azkartzeko edo atzeratzeko bakarrik egiten direnak, analgesia, enema, ile-moztea, episotomia, etab.
- 7.** Haurdunaren kartilla, dokumentu pertsonal gisa, edukitzekoa, haurdunaldian aldian-aldian egiten diren azterketak jasotzen dituen.



Haurraren eskubideak

Haurrak tratu eta zainketa berezia behar izaten du. Hori dela-eta, Osakidetzako zentro sanitarioetan edo Osakidetzak hitzartutako zerbitzuetan ospitaleratuta dagoenean, eskubide orokor guztiez gain, ondokoak ere badauzka:


- 1.** Ospitalean dagoen bitartean, gurasoekin edo euren ordezkariak datozen pertsonarekin ahalik denborarik gehiena emateko eskubidea du.
- 2.** Eskubidea dauka, ahal dela, egunez ospitaleratuta egoteko.
- 3.** Bere adinera, garapen mentalera eta egoera afektibo eta psikologikora egokitutako informazioa jasotzeko eskubidea, dagokion tratamendu mediko guztiari buruz eta tratamendu horrek eskaintzen dituen aukera positiboak buruz.
- 4.** Eskubidea dauka banan-banako harrera eta segimendua izateko. Harrera hori egiten eta dagozkion zainketak ematen, ahal dela, erizain eta laguntzaile berak arituko dira.
- 5.** Estualdietan, bere gurasoekin edo haien ordezkariarekin harremanetan egoteko eta horretarako behar diren baliabideak izateko eskubidea du.
- 6.** Beste haur batzuekin batera ospitaleratuta egoteko eskubidea dauka, hau da, nagusien artean ospitaleratuta egon gabe.
- 7.** Altzari egokiekin eta gainerako guztiarekin hornitutako lokalak izatekoa. Lokal horiek, segurtasun-arauei jarraiki, egokiak behar dute izan zainketen, hezkuntzaren eta jolasen arloko beharrei erantzuteko.
- 8.** Ospitalean dagoen bitartean, bere eskola-prestakuntza jarraitzeko, eta eskola-agintariek bere zerbitzura jarritako irakaspenak eta material didaktikoa erabiltzeko eskubidea, baldin eta trabagarri gertatzen ez bada bere tratamenduari begira.
- 9.** Ospitalean dagoen bitartean, bere adinerako jostailu, liburu eta ikus-entzunezko baliabide egokiak izatekoa.
- 10.** Eskubidea dauka behar dituen zainketak gerta ala gerta jasotzeko; nahiz gurasoek edo haien ordezkariak ezetz esan, arrazoi erlijiosoak, atzerapen kulturalak eta aurreiritziak direla medio, edo urgentziari aurre egiteko behar diren urratsak emateko baldintzarik ez daukatelako, eta, ondorioz, zainketa horiek ziurtatzeko justiziaren parte-hartzea beharrezkoa gertatzen bada ere.
- 11.** Haurraren kartilla sanitarioa edukitzeko eskubidea dauka, dokumentu pertsonal gisa, hartu dituen txertoak eta bere osasunerako garrantzitsuak diren gainerako datuak jasotzen dituen.



Betebeharrak

Pazienteak, erabiltzaileak eta familiartekoek Osakidetzako zerbitzuak edo Osakidetzak hitzartutakoak erabiltzen dituztenean, ondoko betebeharrak daukate:

- 1.** Erakunde sanitarioetan dauden arau eta jarraibideak betetzen laguntzea.
- 2.** Erakunde sanitarioetako langileak, gaixoak eta euren laguntzaileak ahalik eta begirune handienarekin tratatzea.
- 3.** Instalazioak zaintzea, eta erakunde sanitarioen bizigarritasuna gordetzen laguntzea.
- 4.** Tratamendurako metodoak onartzen ez diren kasuetan, borondatezko altari dagokion agiria sinatzea.
- 5.** Zentroetako funtzionamenduan antzematen diren irregulartasunak erakunde sanitarioetako arduradunei jakinaraztea.
- 6.** Zerbitzu sanitarioak erabili behar diren guztietan Osasun Txartel Indibiduala eramatea.
- 7.** Larrialdietako zerbitzuak benetako beharra dagoenean bakarrik erabiltzea, eta, ahal dela, ohiko zerbitzuetara jotzea.



Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu Pazientea Artatzeko Zerbitzuan.

Telefono interesgarriak:

- | | |
|--|-----------|
| - Donostia Hospitalea | 943007000 |
| - PEAZ (Pazientea Artatzeko Zerbitzua) | 943007072 |